

MANUEL SALAVERRIA, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidentea.

Manuel Salaverriak bere lan profesionalaren zati handi bat euskal I+G arloan egin du, enpresa industrialetan, teknologikoetan edo zerbitzuetako enpresetan. Zientzia Fisikoetan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean eta Enpresen Zuzendaritzan Masterra Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun, Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidentea da, Innobasque.

Bere ibilbide profesionalean Euskal Autonomia Erkidegoko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Klusterraren, Gaiaren, buru izan da, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Basque Industry 4.0 Gidaritza Taldearen zuzendari exekutiboa izan da. R telekomunikazio-enpresako zuzendaria eta Euskaltel Taldeko Marketing Korporatiboko zuzendaria izan zen, eta hainbat kargu bete zituen.